


# BERRIGARA

105. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1995, irailak 29



# Futbolmania



**CITROËN ZX**



**CITROËN**

## ION AUTOAK

Urarte, 10. Tfnoak: 76 47 49 / 76 47 73 Faxa: 76 54 27



Hil honetan, **ESKAITZA**  
**DISDIRATSUAK** aurkituko dituzu gure  
modeloetan. Bisita gaitzazu eta proba  
itzazu 95ko **CITROËN** auto zoragarriak!!



**CITROËN XANTIA**





• Zainduiozu bista, alde ederra igarriko diozu •



Zatoz orain OPTICOS ASOCIADOSera

irailean zehar zure bistaren azterketa osoa egingo

dizugu eta gure optikoetan aukerarik zabalena

aurkitu ahal izango duzu, preziorik onenean.

### Berriz eskolara kanpaina

OPTICOS ASOCIADOSen betaurreko klase asko ditugu



3 urtez gorakoentzako betaurrekoak



lhasle pribilegiatuentzakoak



Etxeko bihurrientzat



eta, jakina... pinpirinentzat ukipen lenteak

zure ikusmena hobetzeko

## P. Manso optika

Irizar pasealekua, 2 BERGARA

Izan ezazu gogoan jasotzen dugun informazioaren %80a begietatik jasotzen dugula. Horregatik gauza garbi dugu... Errendimendu hobea izan dezan zainduiozu bista.



## Z E B E R R I D A ?

## E S A N D U T E

### MARIJE UNAMUNO *Udaleko Enplegu Teknikaria*

**- Zein da Arrisku Soldata programaren helburua?**

- Langabezian dauden gazteek enpresak sortzeko ideiak lantzea. Programa honen bidez autoenplegurako baliabideak eta laguntza eskeintzen zaie. Nola? Aurkeztutako proiektuen artean bi aukeratu dira eta kontsulting baten laguntzaz ideien bideragarritasuna aztertzen da. Horrez gain, beharrezko prestakuntza eta diru kopuru bat ematen zaie aurrera egin ahal izateko. Gogoratu ideiak aurkezteko epea azaroaren 3an amaituko dela.

**- Zein erantzun izan duzue orainarte?**

- Dagoeneko 4. urtea da honako programa hau konbokatzen dugula eta



denetik egon da. Gauza batzuk (Gas instalakuntza, Bidriera tailer bat...) martxan ari dira erantzun onarekin gainera eta beste batzuk (eskulan ikastaroena ad.), aldiz, itxi egin behar izan dute arrazoi ezberdinengatik. Ez dira proiektu asko egon baina gauza interresgarriak egin dira.

**"Langabetuen autoenplegua bultzatu nahi dugu Arrisku Soldata programarekin"**

## I T U R R I O N E T I K

### Kiroldegiko tenis pista urritik aurrera erabili ahal izango da

Dagoeneko amaitu dira Labegaraietako Kiroldegian tenis pista bat egiteko lanak. Tenis pista Kiroldegia kanpoaldean markatu da eta pista inguratzeko sare haundi bat jarriko da. Pistak 24, x 12,5 m.ko neurriak izango ditu eta Udal Kirol Zerbitzua pista betirako bertan utzi ala alokatzen denerako bakarrik jartzeko aukera aztertzen ari da. Alokatzeko orduei dagokienez Kirol Zerbitzuak ez du oraindik erabaki definitiborik hartu. Prezioa, berriz, zehaztuta dago eta erabiltzaileek (Kirol Zerbitzuko bazkideak zein gainontzeko herritarrek) 400 pezeta orduko ordaindu beharko dituzte.

"Etzanizek asko jokatu zuen. Niretzat ez da sorpresa izan. Oso zuhurra da"

**JULIAN RETEGI**  
Pilotaria  
EL DIARIO VASCO

"Kanpotik datorren behi okelaren kalitate eskasak desprestijiatu egin du behi haragia eta horren ondorioz kontsumoak %25 behera egin du azken 6 urtetan"

**BALENTIN GABILONDO**  
EHNEko  
Gipuzkoako  
presidentea  
EL DIARIO VASCO

"Euskara departamentua kentzea oso gogorra da, baina kontutan izan behar da gaur egun departamentu horren zeregina beste toki batzuetan betetzen dela. Euskal Herriko Unibertsitatea ez zegoenean, lan historikoa bete zuen baina Bergarako UNEDek, urrutikako unibertsitate normalizatu bat izatera jo behar du"

**KORUKO AIZARNA**  
Kultura Diputatua  
DEIA

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.

**Argitaratzailea:**

BERRIGARA Elkartea. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 03 97

**Zuzendaria:**

Agustín Azkarate. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Redakzioa:**

Agustín Mendibil. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Maketazioa:**

Agustín Azkarate. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Publizitatea:**

Agustín Azkarate. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Harpidetzak:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Testuen zuzenketa:**

Agustín Plazaola. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Redakzio kontseilua:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

**Elkarlanean:**

Agustín Elorza. Baserreka, 13 Bergara. Telefonoa eta Faxa: 76 08 19





### LA CIUDAD DE LOS NIÑOS PERDIDOS

Ostirala: 22.30

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.  
Astelehena: 19.30.



### LOS INMORTALES 3

Igandea: 11.30.



### LADYBIRD, LADYBIRD

Osteguna: 20.00.

## Zinea

▼▼ **Jeunet eta Carok** *Delicatessen* filmeko egileen azken fantasia astebukaera osoan ikusgai. Behelainoaz galduriko itsas plataforma batetan *Krank* (**Daniel Emilfork**) azkarregi zahartzen ari da ametsetarako ahalmenik ez duelako. Horregatik, portuko haurrak bahituko ditu ametsak lapurtu ahal izateko. *Delicatessen* bezala, kamara joku eta efektu berezi benetan aipagarriak.

▼▼ *Matinalaren* itzuleran, *Connor MacLeoden* (**Cristopher Lambert**) abentura berriak. Trilojiari amaiera ematen dion filme honetan *MacLeodek Kane* (**Mario Van Peebles**) izeneko aztiaren aurka borrokatu beharko du. Batek bakarrik jarraitu ahal izango du hilezkorra izaten...

▼▼ **Ken Loach** zuzendari britaniarrak kritika eta publikoaren errekonozimendua jaso du bere azken filmeengatik (*Agenda oculta*, *Tierra y libertad*). Honetan bere seme-alaben kustodia galdu duen emakume baten (**Crissy Rock**) benetako istorioa kontatzen digu. Bere bikote berriarekin (**Vladimir Vega**) zentzugabeko legeen aurka borrokatuko du.

## Deiak

▼ **Barnetegiak.** IKA euskaltegiaren egonaldiak Lesaka eta Donostian. Argibideak (948) 63 77 96/ 45 15 55 telefonoetan.

▼ **Antzerkia.** Txirri Gorosabel eibartarrak "La voz humana" izenburuko monologoa eskeiniko du larunbatean gaueko 11etan Nahikari tabernan.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean, urriak 3, 7etan Seminarioko baxuetan.

▼ **Mikel Murgizuk** lumatxo egindako lanak Kultur Etxean ikusgai.

▼ **Juanjo Altuna** pintore beragararraren margo erakusketa Donostiako Olaetxe Galerian urriaren 24ra arte.

## Ogia

▼ **Igandea 1:** Ogizun.

## FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 29:** Mozos/Ruiz.
- ▼ **Larunbata 30:** Camacho/Mor.
- ▼ **Igandea 1:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 2:** Puy.
- ▼ **Asteartea 3:** Guallar.
- ▼ **Asteazkena 4:** Estella.
- ▼ **Osteguna 5:** Mozos.

## BOLSOS BERGARA, S.L.

✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.

✓ Denetarikoa konfekzio industrial

✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz, 1 BERGARA

Tfnoa: (943) 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66



# San Migelak Angiozarren

## Trikitixa eta aizkolariak nagusi jaietan

**Astebukaera** hone-tan San Migelen omenez-ko jaiak ospatuko dira Angiozarren. Atzo eman zitzaizen hasiera Angiozarreko jaietara, gaur, San Migel egunez, hainbat ekitaldi izango dira. Arratsaldeko 8 t'erdietan Imanol eta Zabaletarekin kalejira egingo da, gaueko 9etan herri afaria eta 11 t'erdietan Imanol eta Zabaletak alaitutako dantzaldia. Bukatzeko, goizaldean, txokolatea banatuko da.

Bihar larunbata San Migel Txiki eguna izango da. Arratsaldeko 3retan plater tiraketa jokatu-ko da, 4retan Kataplof malabarista taldeak umeentzako emanaldia eskeiniko du, arratsaldeko 7etan "Autopullman Araba" mus txapelketa jokatu-ko da, gaueko 9etan Maixa, Itziar eta Garbiñerekin kalejira, 10etarako briska txapelketa iragarri da eta 11 t'erdietan, berriz, Maixa, Itziar eta Garbiñerekin dantzaldia. Ohizkoa denez, goizaldean txokolatea banatuko da.

Igandean, urriak 1, Meza Nagusia San Migel parrokian goizeko 11etan eta meza ondoren auzo alkatearen aldaketa eliz-



Igandean, jaietara bukaera emateko, San Migel zeruratzea egingo da.

pean. Zortzi urtez auzo alkate izan den Jose Angel Mikeok testigua pasako dio Gorka Elorzari. Ohizkoa denez, Angiozar Bailarako Batzarreko akta irakurriko da eta sinbolo moduan herriko papelak, seilua eta makila biltzen dituen kajatxo emango zaio alkate berriari. Jarraian, 12etan, luntxa eman-

go zaie bildutakoei eliza atarian.

Igande arratsaldean, berriz, aizkolari, harrija-sotzaile eta trontzalariak izango dira 4 t'erdietan. Pato II eta Aitzeta gaztea arituko dira harria jasotzen eta Aierbe eta Agirrezabalek, berriz, kanako enborra nork lehenago ebaki desafioa egingo

dute. Ondoren, Arrospide aizkolaria, Ugarteburu eta Laskurainen kontra arituko da. Angiozarko eta Goierriko trontzalariak ere nor baino nor arituko dira. Arratsalde osoan zehar Gezalaga trikitilarien saioa. Jaietara bukaera emateko San Migelen zeruratzea egingo da plazan eta bukatzeko dantzaldia izango da Gezalaga anai-arebeekin. San Migel zeruratzea orain 5 urte hasi zen egiten eta topatzen duenari diru saria eta Angiozarren afari bat ematen zaio. 92an Falcesen aurkitu zuten.

### Harrijasotze eta haizkolari desafioa iragarri da igande arratsalderako

**PINTURAS BERGARA**

**PB**

Aranerreaka, 32 behea. BERGARA.  
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •  
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...



### Bergarar bat besterik ez!!

"Footing" zalea naizenez eta San Martinetan lasterketa jokatu ondoren, zera adierazi nahiko nuke:

Penagarria da, azken aldian lasterketa honek hartu duen tankera partaidea mailan. Kontutan izan behar da adibidez, Behobia-Donostia lasterketara 100 bat bergarar joaten direla eta hemen, berriz, urtero-urtero herritarren partizipazioa gutxitzen joan da eta azken lasterketa honetan bergarar batek bakarrik hartu du parte.

Egoera hau zuzentzeko erreflexio eta azterketa zuzen bat egin dezatela eskatuko nieke antolatzaileei.

ANTON BARRUTIA

### Igerilekuen berrikuntza

Txiki txikitatik joan izan naiz Bergarako igerilekuetara. Lagunekin askotan komentatzen dut zorte asko dugula bergararrok honelako piznak izateagatik. Baina oraingoan kritikatzko bat egitera nator: nere ustez nahiko zahartuta geratu dira (batez ere barrukoak, kanpokoak kontra ez daukat ezer) eta komeniko litzateke hainbestetan komentatu izan den berrikuntza hori egitea.

Batetik aldagelak txikiegiak geratu dira eta dutxak eta komunak hobetzea ere ondo egongo litzateke. Dutxen kasuan sinestezina iruditzen zait oraindik ur hotza eta beroarekin dagoen arazoa. Batzutan ur hotzegia, beste batzutan irekiten. Nola da posible hori? Horrela hartzen dira gero katarroak. Hainbeste urte zabalik egon ondoren ordua da hori hobeto zaintzeko, eguneroko erabiltzaileon kexa nagusienetakoa hori izaten baita. Ez daude dutxa asko eta ez dut uste gehiegi eskatzea denik. Onena norberak uraren temperatura kontrolatzeko sistema jartzea litzateke.

Eta bukatzeko pasa den astean gerturikoa salatu nahi nuke: goizeko lehen orduan igerilekuko kale bakar bat zegoen publikoarentzat zabalik eta gaintzeko kaleak ikastetxeetako ikasleek okupatzen zituzten. Nola da posible bertan egongo ginen 10 bat lagunentzat kale bakarra egotea? Ezin daiteke hori hobeto antolatu? Ez zait justua iruditzen urtero kuota ordaintzen dugunok baldintza minimo batzutan igeri egin ahal ez izatea.

Karta hau igerilekuen funtzionamenduaren onerako izango delakoan, agur t'erdi.

ESTHER U.

### Aupa Etxaniz!!

Jokin Etxaniz pelotari bergararra nozitia izan da aste honetan. Logroñoko San Mateo pelota jaialdiko protagonistetako bat izan da erakutsi duen joko bikainarengatik. Pozten naiz. Izan ere, hilabete latzak pasa ditu Etxanizek azken aldian. Uda partean pelota munduan izan diren *saltsak* tripako min ugari sortaraziko zien berari eta profesional mailan ari diren beste herriko pelotariei, Zezeaga eta Oregi anaiei.



Kontu horri buelta gehiegi emateko gogorik ez daukat, nahiago dut herriko pelotari profesionalak animatu. Etxanizek sekulako partiduak egin ditu Adarragan, horrela aitortu dute kazetariak eta baita pelotariak ere, Retegi, Galarza edota Errandoneak, esate baterako. Erasoa jokorik ez duela, pegadarik ez duela eta horrelakoak entzun izan ditugu, baina Etxanizek kontrakoa erakutsi du Logroñon. Adarragako pelotalekua tope-raino bete duten zaletuak horren lekuko dira.

Beno, gehiegi luzatu barik, animo Etxaniz, Zezeaga eta Aitor eta Joseba Oregi eta ea aurrerantzean suete hobea duzuen.

ZALETU BAT  
72. 572. 786

## Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ





◆ **Etxebizitzen errehabilitazioa**

Etxebizitzen birgaitze eta erreforma lanetarako dirulaguntzen informazioa asteartetan izan ordez asteazkenetan izango da urriaren 11tik aurrera Udal Bulego Teknikoan.


◆ **Zozketa**

Aranzabal Lagunartearen zozketan 1.597 zenbakia izan da saritua. Boletoaaren jabeak Realeko jokalariek sinatutako kamiseta bat jasoko du Infernukua tabernan.

◆ **Zenbaki saritua**

Elgoibarreko Gazte Asanbladaren zozketan 900 zenbakia mendiko materialarekin saritua izan da.

# Hitzarmena Udalaren eta Eusko Ikaskuntzaren artean



Victoriano Gallastegi, Lola Valverde eta Koldo Pereira astearteko sinatze ekitaldian.

**Astearte** goizean Eusko Ikaskuntza eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmena sinatu zen. Victoriano Gallastegi alkateak eta Lola Valverde Eusko Ikaskuntzaren Gipuzkoako presidente-ordeak sinatutako akordio horren arabera, Eusko Ikaskuntzak Zerrajerako artxiboa (2.021 kaxa eta 120 plano) antolatu eta sailkatuko du.

Gaur egun Union Cerrajerako fondo hori Errekalde jauregian dago, eta Jauregitik artxibo berrira eramaten denetik 3 hilabeteko epea izango du Eusko Ikaskuntzak sail-

katze lana egiteko. Lan hori egiteko beka bat kaleratuko da eta Udalak 500.000 pta. jarriko ditu Eusko Ikaskuntzaren esku deialdia egin, epaimahaia osatu, aholkularitza eman eta lana burutu ahal izateko. Betebeharreko baldintzei dagokienez, Eusko Ikaskuntzako bazkidea izatea edo Bergaran erroldatua egon eta artxibistika ikasketak izatea (edo lanarekin zerikusia duen esperientzia frogatzea) eskatuko da.

Bestalde, asteartean Eusko Ikaskuntzako bazkide kolektiboa izateko konpromezua hartu zuen


Udalak. Bazkide Ongile izateagatik Udalak 350 mila pezeta ordainduko ditu kuota gisa. Horren truke, besteak beste, Eusko Ikaskuntzak bere argitalpenen bilduma osoa eta urtero argitaratzen dituen liburuak eskeiniko dizkio Udalari, Eusko Ikaskuntzak urtean behin kultur ekintza bat (hitzaldi-zikloa, erakusketak, jardunaldiak...) antolatu-ko du Bergaran eta Udalak hala eskatuz gero, elkarrearen helburuekin bat datozen udal gaien inguruko aholkularitza zerbitzua eskeiniko dio Eusko Ikaskuntzak Udalari.

**HILDAKOAK**

- Ruth Bolinaga Agirre**  
Irailak 22, 34 urte
- Prudencia Gabilondo Lete**  
Irailak 23, 90 urte
- Marcos Ibabe Amutxastegi**  
Irailak 23, 69 urte
- Eurne Barrenetxea Arruti**  
Irailak 23, 12 urte
- Juliana Azkarate Agirrezabal**  
Irailak 25, 85 urte
- Isabel Aperribai Madinabeitia**  
Irailak 25, 62 urte

**JAIOTAKOAK**

- Mikel Castro Nova**  
Irailak 23
- Ainhoa Sainz Santiago**  
Irailak 23



Matxiategi  
Elektragintza  
C.B.

ELEKTRIZITATE  
MATERIALEN  
SALMENTA ETA  
INSTALAKUNTZA

Fleming Doktorea, 5  
☎ 76 19 94

Deco-Textil

ZANGITU

Etxerako lantzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



## Bergarako Orfeoia ahotsen bila

Bergarako Orfeoia mutil gazte eta gizonen ahots berrien bila dabil. Emakumezkoak gizonzkoak baino gehiago dira Orfeoian eta hori dela eta, deialdi ireki bat egin dute herrian Orfeoiko kide izan nahi duten gizakumeei zuzenduta. Urriaren 5ean, osteguna, entsaio ireki bat egingo dute gaueko 9etan Zabalotegiko entsaio lokalean, Orfeoiko kide izan nahi duten gizakume guztientzat. Interesa dutenei bertara agertzeko gonbitea luzatzen dio Bergarako Orfeoia. Esan dezagun, bestalde, Orfeoia Rutter-en Requiema eskainiko duela urriaren 12an Donostiako Victoria Eugenia eta larunbat honetan, gaueko 10etan, Zabalotegin entsaio ireki bat egingo du. Aste honek, bestalde, berri txar bat ekarri digu, urteetan Orfeoiko kide izan zen Isabel Aperribai Madinabeitia astelehenean hil baitzen. 62 urte zituen eta bere aldeko hileta elizkizunak asteartean egin ziren San Pedron. Bergarako Orfeoia bere doluminak adierazi nahi izan dizkie bere senitartekoei ezbehar honengatik. Eta aipatu dezagun, azkenik, Jesús González Bastida, musika munduan lan ugari egin zuen bergararra irailaren 15ean hil zela. Miguel Gonzalez Bastidaren, Bergarako Udala Musika Bandako zuzendaria izandakoaren, anai eta gaur egun zuzendaria den, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren osaba zen. Jesús Zumarragan bizi zen eta bertako musika bandako zuzendaria izan zen urteetan.



Berritze lanak egin arren, espezialitate ezberdinetako zerbitzuak ez dira oraindik jarriko.

## Anbulategia haunditzeko lanak hasiko dira urte amaieran

*Hutsik dagoen bigarren solairua martxan jarriko da*

Urte amaieran hasiko dira Bergarako ambulategia eraberritu eta haunditzeko lanak. Osakidetza aurkeztutako proiektuaren arabera, lehen solairua berritzeaz gain, erabiltzen ez den goiko solairua ere egokituko da. Obra baimena uztailaren amaieran eman zitzaion Osakidetza eta honek, lanekin hasten denetik, 6 hilabeteko epea izango du bukatzeko.

Momentuz ez dago espezialitate ezberdinetako zerbitzu berriak jartzeko proiekturik baina orain hutsik dagoen bigarren solairuan medikuntza orokorreko kontsultak jarriko dira eta lehen solairuan, berriz, pediatria eta ginekologiako sailak haunditu eta erradiologiako berri bat eraikiko da. Errehabilita-

zio gela haunditzeko asmoa ere badago, proiektu honen helbururik nagusienetakoa erosotasuna eta jendeari kaso egiteko ahalmena gehitzea baita. Bigarren solairurako igogailua jarriko da eta horrek teitatuari eragingo dio, barruan egin beharreko lan batzuk, berriz, edizioaren aurrekaldeari.

Bestalde, baliteke ambulategiaren ondoan dagoen Iberdrolako subestazioa lekuz aldatzea eta bertan aparkalekuak jartzea. Subestazio hori Txarako ur biltegitik gertu kokatzeko aukera aztertzen ari da Iberdrola (aldaketa datorren urtean egingo litzateke) eta beraz, ambulategia eta alboko ikastetxearen arteko lursailan aparkalekuak egingo lirarteke.

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia**  
**Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12





Surran jarriko den antena beharrezkoa da telefono mugikorren kobeturarako.

## Telefonia mobilerako antenak Surran eta Untzetan jarriko dira

*Udalak abuztuan obrak geldiarazi zituen*

Telefonia mobilerako antenak Surran eta Untzetan (Osintxu auzoan) jarriko dira azkenean. Jakingo duzue, Airtel S.A.k antena Surran jartzeko baimenik gabe hasitako lanak geldiarazi zituen Udalak. Hirigintza Batzordeak 30 m. inguruko altura duen antena errepitidorea horrelako beste antenak dauden tokietan (Gorlan edo San Migelen) jartzeko aukera aztertzeke eskakizuna egin zion Airteli. Udalak Surrako ingurunea babestu nahi zuen honelako antenak ez jartzeko baina ez da beste konponbiderik aurkitu eta azkenean bi antena jarriko dira, bata Surran eta bestea Bergara eta Soraluze arteko mugan.

Aipatutako bi antenek 11x7 m.ko txabola izango dute inguruan.

Airtelek komunikazioaren *katea* ez galtzeko bi antena jartzea eskatu du eta Udalak baimena eman dio. Bi antena horietatik telefonia mobileko aparailuak inguruko herrietako sareekin konektatu ahal izango dira eta erabiltzaileek distantzia luzeko komunikazioak lortu ahal izango dituzte inolako arazorik gabe. Abendurako martxan egongo direla espero da. Azken urteetan telefonia mobilak izan duen gorakada ikusirik beharrezkoa ikusi zen antena jartzea.

Airtel enpresak ez du Telefoniarekin harremanik eta baliteke Udaletxean antenak jartzeko eskakizun gehiago jasotzea, Telefoniaren aparailuak homologatu gabe baitaude oraindik.

### ◆ Plenoa

Asteleheneke ez-ohizko Plenoan Udalbatzak merkatuan bost postu adjudikatzeko baldintza plegua onartu zuen. Era berean Eusko Ikaskuntzarekin sinatu berri den hitzarmena eta Turismo Bulegoari buruzko erantzuna Mankomunitatera bidaltzea onartu zen aho batez. HBk, erregu eta galderetan, ohizko Osoko Bilkurak hilabetero egitea eskatu zuen.

### ◆ Intsumiso eguna

Urriaren 8an Bermeon izango den Intsumiso egunera joateko autobus txartelak Zuhaziti, Pol-Pol eta Arrano tabernetan jaso daitezke.

### ◆ Mariaren Lagundia

Mariaren Lagundiko ikasleek beka eskatzeko epea urriaren 20ra arte izango dute zabalik. Argibideak Idazkaritzan.

### ◆ Nafarroa oinez

Urriaren 15ean Nafarroa Oinez txoznan lan egiteko jendea behar da. Interesatuak JARDUNERA (76 08 19 telefonoa) deitu.

### ◆ Diapositiba emanaldia

Indonesiari buruzko diapositiba emanaldia izango da datorren ostegunean, urriak 5, 19.30etan Pol-Polen. Asteleheneetik ostiralera bitartean erakusketa ikusgai izango da.

### ◆ Hitzaldi-bilera

Gipuzkoako Gaixo Psikikoen Senitartekoen Elkarteak bilera bat antolatu du astelehenean, urriak 2, arratsaldeko 6etan Kultur Etxean.

*Kizkur*

**ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

**LONBIDE  
OINETAKOAK**



**Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA**





# BERGARAKO OSASUN Gida

## ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ..... ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala). Telefono mobila. .... ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. .... ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 908 87 68 47 (Mobila) - Koldo Eleizalde, 28. .... ☎ 76 27 97
- SUINAGA Esther (Etxeko animaliak. Etxez -etxeko zerbitzua). .... ☎ 76 17 84

## ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. .... ☎ 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. .... ☎ 76 32 06

## DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behe. .... ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. .... ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behe. .... ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. .... ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behe ezk. .... ☎ 76 07 66
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

## FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. .... ☎ 76 43 71

## GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili, 2. .... ☎ 76 59 39 - 72

## MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL Jose Jabier - Boni Laskurain 1, 2.A. .... ☎ 76 15 74
- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. .... ☎ 76 06 43
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. .... ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behe. .... ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. .... ☎ 76 51 18

## MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. .... ☎ 76 37 50

## PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - Simon Arrieta 3, 2.E. .... ☎ 76 26 42

## PODOLOGOAK:

- ALTUBE Eurne - Simon Arrieta, 2. .... ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. .... ☎ 76 41 32

## PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. .... ☎ 76 26 64

## PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). .... ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). .... ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA, ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). .... ☎ 76 30 76



# Guapinoleko Etxe Komunitarioa Bergarako diruz egindako etxea

Udan inauguratu zen Ni-  
karaguako Granada hiri-  
an Bergarako Udalaren  
laguntzaz eraiki den  
"Guapinoleko Etxe Ko-  
munitarioa".

Etxe komunitario ho-  
nen eraikuntzan Donos-  
tiako Udalak, Astigarraga-  
koak, FISC (Fundación  
Internacional de Solidari-  
dad) erakundeak eta Ber-  
garako Udalak hartu dute  
parte. Guztira, 6 milioi  
pezeta inguruko aurre-  
kontua izan du: Astigarra-  
gako Udalak 600.000 pe-  
zeta inguru eman ditu,  
Donostiakoak milioi bat,  
FISCek 2 milioi eta Berga-  
rako Udalak, azkenik,  
2.400.000 pezeta.

Granada hiriak 80.000  
biztanle ditu eta Pazifiko  
aldean dago, "Lago Nica-  
ragua"tik iparraldera. Hi-  
riaren kanpoaldean Gua-  
pinol, Richard Lugo eta  
Pancasán auzoak daude,  
bertan 7.000 lagun inguru  
bizi direlarik. Horietatik  
gehienak (%70a) langabe-  
zia daude eta emakume-  
ek eta haurrek etxetik  
kanpo lan egin behar izan  
dute familiako ekono-  
mian laguntzeko. Ego-  
era honetan, elikadura,  
osasuna eta hezkuntza  
nahiko eskasak dira.



Jose Angel  
Mikeo irakasle  
angiozartarrak  
klaseak eman  
zizkien bertako  
monitoreei.

1991tik Guapinolen dago-  
en Mariaren Lagundiko  
komunitate batek talde  
bat osatu zuen auzoaren  
premiak markatzeko eta  
etxe komunitario baten  
beharra ikusi zen.

## Jose Angel Mikeo bergarra Nikaraguan

Gupari izeneko talde  
horrek FISC ONG taldea-  
ren bitartez hainbat uda-  
len laguntza lortu zuen.  
Bergarako Udalak ere 3.  
munduari zuzendutako  
partida bat dauka ONGek  
egin zuten %0,7aren al-  
deko kanpainaren on-  
doren (Ruandara eta Gua-  
pinolera bialdu izan du

laguntza) eta proiektuan  
kolaboratu izan du.

Pasa den abuztuaren  
13an inauguratu zen etxe  
komunitarioak 690 m<sup>2</sup>ko  
azalera dauka eta bertan,  
besteak beste, liburutegia,  
farmazia, sukaldea,  
logelak, jardinak etab.  
izango dira, debaldeko  
zerbitzua eskeiniz. Jose  
Angel Mikeo Bergarako  
Mariaren Lagundiko ira-  
kaslea Nikaraguan izan  
zen Udala ordezkatzuz.  
Bere hitzetan, "etxeak  
zerbitzu ona egingo die  
bangoei. Liburutegia adi-  
bidez Granadako onena  
da eta bezkuntza mailan  
aurrerapausu haundia  
emango da". Mikeok az-

pimarratzen duen moduan,  
"oso barrera ona egin  
ziguten eta asko esker-  
tzen dute laguntza. Eus-  
kaldun abizena duen  
jende dexente egon arren  
orain ezagutu dute Eus-  
kal Herria non dagoen".

Inaugurazio egunean  
Ikurriña jarri zen eta Mi-  
keok Bergarako alkate-  
aren idatzi bat irakurri zu-  
en. Horrez gain, Bergara-  
ko Udalaren harmarria eta  
plaka bat jarri ziren sarre-  
ran oroigarri modura.  
Bertan, euskaraz eta gaz-  
teleraz zera irakur daite-  
ke: "Bergarako Herriak  
Granadari. Euskal Herria-  
Nikaragua elkartasuna.  
1995eko abuztua".

AGENTZIA:  
**J. ELKORO**

Ibargarai, 2 behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

VITA

CAUDAL

**ZURICH TALDEA** ASEGURUAK

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

**SURPE**

**Taberna**

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA



## Osasuna

### Ilea nola zaindu

- **Udazkenean gaude-la eta, ileari tratu berezirik eman behar zaio sasoi honetan?**

- Bueno, egia da sasoi hau ez dela egokiena ilea ondo izateko. Udan, eguzkiak, itsasoak eta ur aldaketek ilean eragina izaten dute eta udazkena heldu bezain pronto ile jausteak eta beste hainbat arazo (kaspas, grasa...) agertzen dira berriz. Arazo horiek agertzea ia normalizat jo daiteke baina ilea ohizkoa baino zertxobait gehiago zaintzea komeni da.

- **Aipatutako arazo horien aurrean zer egin daiteke?**

- Pertsona bakoitzak kasu ezberdina da baina egokiena norberak bere arazoari dagozkion produktuekin asmatzea litzateke. Kaspas eta grasaren agertzearen aurrean badira txanpu bereziak eta beste hainbat produktu, nahiko erantzun ona ematen dutenak gainera. Ilea jaustea, bestalde, nahiko normala da eta ez da gehiegi larritzekoa. Arazoa da jausi eta reje neratzen ez denean, orduan gauza gutxi egin

daiteke. Ilea jaustea atzeratzen duten produktuak badira baina ez dago "produktu milagrosorik" oraindik. Baina bueno izan dira zenbait kasu belarren bitartez konpondu direnak. Onena norberaren ileapaintzaleari kontsultatzea eta zenbait produktu probatzea izango litzateke. Arazoarekin jarraitzekotan dermatologoarengana joan gaitezke baina kasu gehienak ga-



**J. MANUEL AGIRREZABAL**  
(Ileapaintzailea)

rrantzi txikiko kasuak izaten dira.

- **Emakume eta gizonezkoen arteko desberdintasunik bai?**

- Antzerako arazoak ematen dira baina egia da hormonon kontuagatik emakumei ilea gizonezkoei baino gutxiago jaus-

ten zaiela. Normalean gizonak baino ile gehiago izaten dute eta orokorrean gu baino hobeto zaintzen dute, tratamendu askoz hobe ematen diote ileari. Begibistan dagoen zerbait da.

- **Mozterako orduan egia da sasoi batzuk beste batzuk baino ego-kiagoak direla?**

- Ilargiaren eraginaren sinisten dutenak badira eta horren arabera hilberan moztea egokiagoa da. Baina ez dakit zehatz mehatz zenbaterainoko eragina duen. Baserritarrek batez ere kaso egiten diote ilargiari (ortu lanetarako eta beste hainbat gauzatarako ere bai) baina ez dakit oso efektiboa izango den. Zenbait pertsonarengan eragina izango du eta beste batzuri aldiz, ez die ezer egingo.

- **Ilea zenbatero garbitzea komeni da?**

- Hori ere norberaren beharraren arabera izaten da baina nik uste astero 2/3 bider garbitzearekin nahiko izaten dela. Ilea orraztea garrantzitsua den? Bai. Alderdi estetikoaz gain, ileak ere bere forma hartzen du eta txukunagoa egoten da.

Bestalde, zenbat eta ile motzagoa orduan eta arazo gutxiago egoten da: hobeto garbitzen da, gutxiago zikintzen da eta ile larruak ez du hainbeste izerdi egiten.

### "Ilea astero 2 edo 3 bider garbitzea komeni da eta orraztea ere garrantzitsua da"



Zenbat eta motzagoa, orduan eta arazo gutxiago ematen du ileak.

**LARREA**

**TABERNA**

Kale Barren, 17  
ANTZUOLA

**Carmen Garate**

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.  
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23



# Futbolmania

## Realak 159 bazkide ditu Bergaran

**Futbolmaniak Bergaran ere izan du eragina. Aranzabal Realean dagoelako, Realak autobusak doan jartzen dituelako edo komunikabideetan futbola nagusi delako, hamabostean behin 2 eta 3 autobus ateratzen dira Bergararik. "Erreal! Erreal! oihuak elkartzen ditu jarraitzaile amorratuak.**



Realak Anoetara joateko autobusak jarri zituenetik futbol zaleak gehitu dira.

**I**gandean Realak etxean jokatu zuen Espanyolen kontra. Azken hiru partiduetan Bartzelonako taldeak irabazi egin zuen, bergararrek, ordea, Donostian galduko zuen esperantza baino ez zuten. Arratsaldeko 4.30ak jotzear eta frontoia bete-beteta zegoen, Realak jarritako 2 autobusak noiz iritsiko zain.

### 159 bazkide

Realak 21.500 bazkide ditu eta horietatik 159 dira bergararrak. Andoni Iraola, Realeko prentsa buruak dioenez probintziako jarraitzaileak ezinbestekoak dira. "Donostia bezalako hiri txiki bate-

*an oso zaila izango litzateke lehen mailako talde bat mantentzea. Guk Gipuzkoa osoko taldeekin erlazio ezin hobeak ditugu. Hemen dago Realaren indarra eta ez beste inon. Gainera, populazioa kontutan hartuta esan behar da, proportzioan Reala dela bazkide gehien duen futbol taldea. Beraz, argi dago, hau probintzia alde batera utzita ezinezkoa litzateke".*

### Domekan futbola

Fernando Ezenarrok 20 urte baino gehiago daramatza Realaren partidurak ikusten. "Normalean ez dut huts egiten. Etxeko partidueak ez ezik kanpoan, inguruan, jokatzen dituen batzuk ere ikusten ditut. Urriaren 8an, esaterako, Valladoliden jokatu du eta eskurtsioa prestatzen ari gara". Aner, bere semea ere futbozale amorratua da. "Aitak txikitatik eraman izan nau Atotxara

*tzen dituen batzuk ere ikusten ditut. Urriaren 8an, esaterako, Valladoliden jokatu du eta eskurtsioa prestatzen ari gara". Aner, bere semea ere futbozale amorratua da. "Aitak txikitatik eraman izan nau Atotxara*

**"Bilbo bigarren mailako txapeldun izatea gustatuko litzaidake"**

**Fernando Ezenarro**

# Iturkintz Berri

**INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa**

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

**LARRAÑAGA  
eta ZUBIA  
Banatzaileak**

Errioxako ardoa, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94



eta orain bazkide naiz duela 6 bat urtetik".

Iñaki Mujikak eta Egoitz Urrutiak 14na urte dituzte, Bergarako bazkiderik gazteenetariakoak dira. "Iaz 4 partidu ikusi genituen baina aurten 3.400 pezeta ordaindu eta 9 partidu ikusteko txartela atera dugu. Autobusa Realak jartzen du, beraz, merkea da eta gainera partidu onak ikusteko aukera dugu, Bartzelonaren kontrakoa e.a... Txartela bukatutakoan eta Real gaizki baldin badabil, ez dugu berriz aterako, zertarako? asperzteko?".

**Neska gutxi**

Miren Maiztegori eta Ane Garcesi (13na urte) sakibaloia, eskubaloia, txirrrindularitza... gustatu arren, batez ere futbolzaleak dira. "Realaren partiduak ikustera joatea Taugres edo beste edozeinen partiduak ikustea baino errazagoa da, Realak autobusak doan jartzen dituelako. Hala ere, ez gara partidu guztietara joaten bazkide ez garelako. Txartela atera nahi genuen baina mugitu ginenerako dena agortuta zegoen". Bufanda eta gorro txuri-urdinak jantzita ibiltzen diren neska hauek ez dira bakarrak. Andoni Iralolak adierazi digunez, gero eta gehiago dira emakume futbolzaleak. "Bazkide berrietan %15 dira

emakumeak. Bebarbada astean zehar futbola ez dute gizakumeak bezala biziko, baina dauden emakumeak oso apasionatuak dira. Realaren bi peñatako presidentek, esaterako, emakumeak dira".

**Aranzabal lagunartea**

Aranzabal lagunartea 80 bat lagunek osatzen dute, emakumeak 5 dira. "Peña oraindik berri samarra da eta ez dago oso zabalduta" dio Lauri Askargortak. "Peñakideak gazteak izan arren, 20-24 urte, era guztietako jendea sartzea nahi dugu: neskak, gazteak, edadekoak... Gure peñak Real animatzea nahi du eta Agus, jakina. Horre-

tarako dirua bebar dugu, 6.000 pezetako kuota jartzen ari gara, baina ez da nabikoa eta kamisetak atera ditugu, txosna jarri, zozketa egin... Ateratako diruarekin partidu batzuetara joatea gustatuko litzaiguke eta dena ondo ateraz gero bazkide egitea. Horretaz gain, futbolarekin zerikusia duten ekintzak antolatzea ere pentsatuta dugu: 24 ordu, bitzaldiak... Helburua, Real eta Aranzabal bultzatzea".

**Futbolmania?**

Argi dago Aranzabal Realean dagoenetik Bergaran futbozaletasuna piztu egin dela. "Nire lagun batek lehen ezin zuten futbola ikusi eta Agus

Realean dagoenetik... dio Laurik. "Mutikoek Agus kalean ikusten dutenean idolotzat hartzen dute, eta jakina horrek futbola bultzatu egiten du, afizioa sortzeko onada". Hala ere, futbolmania dela eta ez dela, beregan ez omen da aldaketarik izan. Fernandok ere halaxe dio: "nik beti bizi izan dut futbola, lehen gainera kanpora gehiago joaten nintzen, Milan eta Liverpoolen ere egonda nago, beraz, ni ez naiz aldatu, beti bezala jarraitzen dut". Iñaki, Aner, Miren... denak datoz bat Realak autobusak jarri dituenetik futbolmania gehiago somatzen dela esaterakoan: "lehen gazteok eta beste jende asko ere ez zen joaten,



Anoetan giro hobea egon dadin atletismo pistak kentzearen aldekoak dira Realzaleak.



Irizar, 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**



• Fotokopiak koloretan  
• Publizitadedun kamisetak  
• Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7 behea.  
☎ 76 50 39

**AKORT**

**Siaska**

Dena zure haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39





Realeko partiduetan maila apalagoetan baino giro hobea egoten dela diote jarraitzaileek.

baina orain autobusarekin jende gehiago animatzen da. Gainera autobuseko giroa oso ona da". Realak partidua galtzen duenean giroa ilundu egiten da, dena dela, Fernandezoren ustez badaude arazo garrantzitsukoak. "Realak Bilbora irabazten badio denboraldia salbatuta dago, gehiago ez dut eskatzen. Iaz 5-0 irabazi zuenean ikaragarria izan zen. Bilbora bakarrik 2. mailako txapeldun izatea falta zaio".

**Eta beheko mailetan?**

Futbolazaleek Anoetako partidua ez ezik Berga-

rarenak ere ikusten dituzte. Inaki eta Egoitz iaz denetara joan ziren, baina aurretik Anoetan txartela atera dutenez ezingo dira joan, partidua kointziditu egingo dutelako. Fernandezok partidua ez badira batera suertatzen joateko asmoa duela adierazi digu: "hala ere, giroa desberdina da, joku hobea dago Anoetan; Agorrosinena askotan aspertu egiten zara, ni klubari laguntzearen joan naiz".

Garbi dagoena da denak direla futbolzale amorratuak eta aukera dutenean, lehen Atotxara eta orain Anoetara joaten direla. ■

**"Futbolaren booma goiko mailetan eman da bakarrik"**

**IÑIGO ZAITEGI.** Bergarako presidentea.

Iazko denboraldian 500 bazkide zituen Bergarako presidente da Iñigo Zaitegi. "Partidua ikustera 200en bat lagun joaten da, gutxi. Ikusle gehikuntza jubeniletan eta nesken partiduetan nabaritu dugu. Realak eta Bergarak etxean egun berean jokatzeko badute, jende gehiago joaten da Realera ikustera eta guretzat hori oso kaltegarria da. Beraz, futbolaren inguruan badago booma, baina goiko mailetan. Dena izarrei begira egiten da, oso promozionatuta daude eta horretan komunikabideek ere badute zeresana. Hala ere, nire ustez partidurik eta jokorik politenak beheko mailetan ikusten dira. Goiko mailetan dirua dago bitartean eta akabo: jokalaria aldatu egiten dira, norberekeria gehiegi dago... Badirudi jendea ez dela konturatzen goiko jokalaria herriko taldeetatik ateratzen direla".

**"Lehen mailan espektakulua dago, behekoetan ez"**

**ANDONI IRAOLA.** Realeko prentsa burua.

Andoni Iraolaren iritziz, futbolak azken urteotan bilakaera handia izan du: "nire ustez futbolak bere irudia berriro egin du. Garai batean futbola alienazio bitarteko bat bezala ikusten zuten batzuk. Hori guztiz desagertu da. Futbola gaur egun espektakulu bihurtu da eta hala agertzen da eta jendeak hala onartzen du inolako prejuiziorik gabe. "Gustoko dut eta kitto". Eta hori esaten denean pasioen sentimenduen eremuan aurkitzen gara; hementxe egon daiteke guztiaren kakoa. Maila apalagoetan espektakuluaren faktorea falta da. Hor kirol hutsa dago eta besterik ez".

**ZAPELAITZ**  
*Taberna*

Eguneko menuak  
asteleheneretik ostiralera  
San Lorentzo, 25 BERGARA

*Kabutzia*

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

**Garnish**

**Bitxitegia**

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57




# Futbola gustatzen zaizu? Futboleko liga jarraitzen al duzu?



**Urko Irizar**  
16 urte, ikaslea

Gustatzen zait bai eta jarraitzen dut. Telebistatik ematen dituzten partiduetatik, ahal ditudanak ikusten ditut.




**Koldo Inza**  
34 urte, langilea

Bai, gustatzen zait baina ez naiz futbolagatik erotzen diren horietakoa. Telebistatik partidu gehiegi botatzen dituztela uste dut.



**Naiara García**  
14 urte, ikaslea

Futbolean jokatzen dut baina ikusteko ez zait horrenbeste gustatzen.




**Toyoko Eguchi**  
26 urte, ikaslea

Neri ez zait gehiegi interesatzen, nere jaioterrian, Japonen, orain modan dagoen arren.



**Raquel Cerdeira**  
20 urte, langilea

Bai, batez ere Realeko partiduak ikusten ditut telebistatik. Besteak segun...



**Benito Dávila**  
40 urte, langilea

Ez. Musika da niri gustatzen zaidana, futbola ez zait gustatzen eta ez dut batere jarraitzen.

# Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.  
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.  
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.  
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.  
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.  
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K  
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

## dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.  
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.  
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.  
HI-FI EKIPOAK.  
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96





## Zinemaldia


Donostiako zine jaialdia hurbiletik bizi izateak eta lantzeak atsegin handia ematen du, hobexea edo eskasago iriten bada ere jaialdia jaialdia baita eta eskaintzen dituen aukerak, berriz, benetan apartak.

Gainera, 43. edizio honek jendez bete dizkigu aretoak eta belodromoa, hauexek bai garrantzitsua, eta Maria Cristina hoteleko sarrerara ere fans ugari gerturatu dira. Azken hauei ez zaie inporta izan 6 orduz bertan itxoitea minutu batez euren gustoko izarra ikusi ahal izateko, Mel Gibsonen kasuan gertatu zen bezala; honek, berriz, Donostian egin zioten harrera beroa ikusita larrosa-petaloak jaurti zituen jendearen artera bere gelako leihotik. Baina Mel Gibsonek izan zituen bai detaile zatarrak ere, esate baterako, Juan Mari Arzakek prestatutako afarira ez agertzea, haren ordeztu hoteleko sandwich bat janez.

Jaialdiko onena dudarik gabe filmeak izan dira eta okerre-na gala-festak, parte hartzen zuten izar guztiek bizkartzainez inguratuta egiten baitzituzten orduak, eurengana inor ezin zitekeelarik hurbildu.

Diru-kontuak ere ongi irten dira, azken kontuak egitea falta bada ere, defizita egotekotan oso txikia izango da eta.

**Marta MORAL**



## Frontoi aurrean

Udara honetan nahi baino denbora gutxiago egin dut Antzuolako frontoi aurreko bankotan. Tertuliarako leku polita da hura. Gazte arteko betiko kontuak: futbola -Joseba Etxeberria errege batzuzentzat, esklabu besteentzat-, pelota, plazako kontenedoretatik irtetzen den usain txarra, errekupeketa, jaiak, halakori gertatutako xelebrekeria eta neskak, nola falta-ko ziren bada. Inor ez dadila sakontasun eta gai traszendental bila etorri...

Baina aurrean zer pentsatua eman zidan egoeraren aurrean egotea suertatu zitzaidan. Rara avis, Antzuolako gazte baten Filosofia karrera hastea erabaki du. Horregatik, hark bere lagunengandik entzun zituenak ez zaizkit oraindik ahaztu: filosofoak zoroak zirela, burutik sano ezin dela egon horrekin hasteko, orain erdi kaskatuta baldin badago gero osorik kaskatuko dela... Azelakotxe perlak. Isilik eta irrifarra ezpainetan zuela jasan zuen "erasoa". Ez dut esango bere lagunek asmo txarrez ari zirenik, baina min egiteko ez da asko behar izaten batzutan.

Mutil gazte haiek Filosofia ikaslegaiari esandakoaren atzetik antzematen denak gehiago arduratzen nau. Ez dakit beste herri batzutan zer gertatuko den, baina Antzuolan somatzen dut ikasketa klase horrentzako mesprezua. Eta gazteen ahotatik irtetzen diren hitzen atzean guraso eta helduen iritzi egoera dagoela esatera ausartuko nintzateke. Ikasketa tekniko eta helburu zehatzeko aldeko jarreraren ondoan, bestelako baztertzear nabarmentzen da. Gaur egun Filosofia edo antzeko ikasketa aukeratzeko ez du lagun txalorik ere jasotzen eta beldur naiz Huxley-ren "Un mundo feliz" bertan ote dugun. Zorionez, uniformetasunari uko egiten dionik bada oraindik.

**Joseba LEZETA**

Atsedeen zentrua  
**LOKARTU**  
Koltxoi-denda  
Orain SORALUZEN

HARATEGIA- URDAITEGIA

**Sebastian Imaz**

Bildotsa, txahala eta  
oilazkoak

Harane Erreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

## ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atekak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07**

*Tomas Gezalaga*

**ANTZUOLA BERGARA**

• Zoruen kutxilatu eta  
barnizaketa •

## ZUBIETA elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK**

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48

**BERGARA  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA**

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Uriarte, 8 BERGARA  
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77





40 bat lagun bildu ziren joan zen igandean Antxoni jatexean.

■ **Kinto bazkaria**

Ohiturari jarraituz, igandean **1933an jaiotako bergararrak** beren anaiarteko eguna ospatzeko bildu ziren. Aurreko urtean ere orrialde honetara ekarri genituen eta ordutik hona, ikusiko duzueenez, sasoi onari eusten diete aurten **62 urte** egin dituzten herritar hauek. Igandean hildakoen oroimenezko meza entzun ondoren bazkaria egin zuten **Antxoni** jatetxean (35 bat lagun bildu ziren) eta azken urtean gertatutakoari errepassoa eman zioten bazkalostean. Hurrengora arte!!

■ **Sutea lam lantegian**

**Iam Electroerosión** lantegian sutea izan zen pasa den ostiral gauean eta horren ondorioz trokelak egiten dituen lantegi "honek kalte larriak jasan ditu. Nahiko berriak ziren 7 makina erabat kiskalduta geratu dira eta orain aseguru etxeak bertan ari dira kalteen diru kopurua zehazten. Oraindik ez da jakin izan ostiral gaueko sutearen arrazoia. Iam Electroerosion lantegiak 7 langile ditu eta momentuz utzi dieten beste pabiloi batzutan hasiko dira lanean lantegia berriz martxan jarri arte. Berrizte lanak aste honetan bertan hasi dira.



Astean zehar kiskaldutako makinak ateratzen aritu dira lam Elektroerosióneko langileak.



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

**zumelaga**

JATETXEA

**EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...**

**etorri eta  
geldetu!!**

**BERGARA  
Karrozeriak**

**Txapa - Pintura**

Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31





■ **Iparraldetik bisitari**

Pasa den astean **Daniel Landart** eta **Teresa Lekunberri** Euskal Kultur Erakundeko partaideak **BERRIGARAN** bisitari izan genituen. Beraiekin batera Iparraldekoa den baina Bergaran bizi den **Peio Hiriart** etorri zen eta gure astekaria eta Jardun Elkartearen funtzionamenduaren berri jaso zuten interes handiz. Jarraian, Teresa Lekunberri eta Daniel Landart idazleak "**Iparralde nora zoaz?**" izenburuko hitzaldia eman zuten Antzuolako Udaletxean. Antzuolarrek Iparraldeko giroko astebukaera izan dute, orain 10 urtetik beraiekin anaikidetuta dagoen **Aiherrako** bizilagunen bisita izan

baiztuten domekan. Autobus bat etorri zen Iparraldetik eta, besteak beste, Matzerreka lantegia, Bidaurre baserria edota Errota-berriko errota ikusi zituzten. Bukatzeko, bazkaria egin zuten (argazkian) beren anfitrioiekin batera.

■ **Holandan**

**Taun-Taun** taldea Vlissingeneko Txotxongilo Jaialdian izan zen astebukaeran. Bergararrek "Makinatu" beren azken antzezlan eskeini zuten domekan eta holandarrei asko gustatu omen zitzaizen, hango egunkarietan kritika oso onak jaso baitituzte. Taun-Taunekoak ere oso



gustora etorri dira eta astebukaera honetan Huesca aldera joko dute arrakasta errepikatzeko asmoz. Ea bada...

**Zertan dihardute ba?**



**Joseba Larrañaga**, Izaro Aperribai eta Aitor Muruamendiaraz bergararrak ETB-1eko "Txiskola" programan azalduko dira datorren urriaren 16an. Gazte hauek pasa den irailaren 14an grabatu zuten ETBko Miramongo estudioetan Kike Amunarrizek aurkezten duen txiste saioa. Bergararrek Leitzako talde baten aurka jokatu zuten eta lehen kanporaketa gainditzea lortu zuten. Orain ETBkoen deia zen zai dira programa berri bat grabatzera joateko. Bestalde, astelehenean Gurutzne Elkoro, Maritxu Barrena eta Mikel Larrañaga izan ziren "Txiskola" grabatzen baina ez ziren hurrengo faserako sailkatu. Oraindik ez da zehaztu beraien programaren emisio eguna.

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**Amets**



- **HERGO** eta **HOBBY** karabanak eta **RIVIERA** autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50


**AMETS TAILERRAK**  
Berezano auzoa OÑATI



# Ion Landa

**Azken 9 urtetan igeltsero dabil. 7.30etan hasten da lanean eta 9 ordu t'erdiz aritzen da. Dantza gustoko duen 26 urteko argazkizalea da.**

- Igeltserotza ala argazkigintza?
- Igeltserotza, ofizioa ikasia dut eta.
- Harria ala egurra?
- Gauza gehiago egin daiteke harriarekin.
- Zeri egingo zenioke harrika?
- Izenik ez dut esango bestela... kristal zaharrei.
- Eta nori monumentu bat?
- Amari.
- Balsa ala tangoa?
- Dantza guztiak, baina balsa.
- Dantza helduta ala suelto?
- Helduta, konpainia onean.
- Neska/mutil batengan zertan fijatzen zara?
- Begietan.
- Piropo bat.
- Bonbon, bollito...
- Gaupasa ala egunpasa?
- Gaupasa, parranda ikaragarri gustatzen zait.
- Angiozarko jaietara bai?
- Kilometroetara joateko asmoa dut eta ez.



*"Argazki rallyetan parte hartzen dut, baina oraindik ez dut zortirik izan. Edozeri ateratzen dizkiot argazkiak.*

*Parrandazalea naiz, Gozategi anaiak asko gustatzen zaizkit, Chiquito de la Calzada ere bai, baina ez naiz txiste kontatzaile ona"*

- Ligatzeko ikastaroen aldekoa?
- Beharbada ondo suertatuko dira.
- Zer ikasiko zenuke?
- Planoak irakurtzen.
- Zeren txertoa hartuko zenuke?
- Gripearena, harrapatzen dudanean jota lagatzen nau.
- Zeri aterako zenioke argazkia?
- Donostiari, munduko hiririk politena da.
- Norekin aterako zinateke argazki batean?
- Claudia Schiffer, Naomi Campbell... ezagunen batekin.
- Chiquito de la Calzadaren jarraitzaile?
- Imitatu ere egiten dut eta askotan isilarazi egiten naute.
- Filme bat?
- Cantinflasen edozein.
- Bertsozalea?
- Jon Lopategirekin ikastaroa egin nuen baina ez naiz ondo moldatzen.
- Telefonoz hitzegitea gustatzen?
- Bai, berba asko egiten dut.
- Euskal Herriko musika talde bat?
- Gozategi anaiak. Gabiriko jaietan primeran pasa genuen.
- Etxeko lanik egiten al duzu?
- Hautsa kendu, aspiradora pasatu, kristalak garbitu...
- Sukaldean ondo moldatzen?
- Leka patatak, txuletak, entsaladak, errioxar erako patatak ondo ateratzen zaizkit.



## UNED-BERGARA

EUSKARA DEPARTAMENTUA 1995-96

■ EGA. Hezkuntza Sailak homologatutako ikastetxea.

■ SAKONTZE MAILA. Gaiak: Morfosintaxia, Itzulpena, Testu azterketa, Fonetika-Dialektologia.

■ IKERTZE MAILA. Ikastaro berria. Gaiak: Testu-azterketa, Dialektologiaren oinarri teorikoak, Garbizaletasuna, Toponimoen etimologia, Etxahun pertsonaia, Bergarako lexikoa, Gipuzkera literarioaren sorrera.

EGA klaseak aste barruan nahiz larunbat goizetan. Matrikula, urriaren 11ra arte. SAKONTZE eta IKERTZE ikastaroak larunbat goizetan.

Matrikula, Urriaren 21era arte.

■ UNED ☎ 76 13 42 / 43

IRAKASLEGO TREBATUA, 18 URTEKO ESPERIENTZIA  
OHARRA: EGAko ikastaroak HABEren diru laguntzaz.

## La Voz Humana ANTZERKIA

Irailak 30,  
larunbata  
23.00etan



**NAHIKARI**

Taberna

Masterreko. 20 ☎ 76 57 71



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** alokatzen da Gasteizen. Ikasleentzat egokia. ☎ 76 14 60.

**Pisua** salgai Antzuolan. ☎ 76 60 39.

**Garaje** bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

**Baserría** salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

**Garajea** alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

**Etxea** salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

**Garajea** salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 27 39.

**Garajea** salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

**Pisua** salgai Zarautzen. ☎ 78 19 50.

**Pisua** salgai Martokuan. ☎ 76 35 50.

**Etxea** salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

**Pisua** alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 25 20.

**Garajea** alokatzen da Masterrékan. ☎ 76 45 10.

**Pisua** salgai Ion XXIII enparantzan. ☎ 76 27 80.

**Pisua** salgai Zabalotegi dorrean. ☎ 76 27 80.

**DENETARIK**

**Pisua** konpartituko nuke Bergaran. ☎ 76 38 32.

**Korrea** gorridun Lotus erlojua galdu nuen San Martinetan. ☎ 76 64 71.

**Gasteizen** pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 53 88 (gauéz).

**Kawasaki** KX 125 motorra salgai. ☎ 76 25 50.

**Mendiko** bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

**Bilbon** pisua betetzeko bi lagun behar dira. ☎ 76 30 21/ 76 47 85.

**Bost katukuma** siames eta indioilarra salgai. ☎ 76 64 65.

**Ehiza txakurra** salgai. 8 hilabete. 15.000 pezeta. ☎ 76 08 58.

**Beasainera** (7.15-7.45etan) joateko kotxea behar dut. ☎ 76 03 20 (Elena).

**Ume txiki** baten eraztuna (selloduna) topatu dut. ☎ 76 35 15.

**Neska bat** behar da Donostian pisua osatzeko. ☎ 76 42 76.

**Leioan** pisua betetzeko bi pertsona behar dira. ☎ 76 30 82 (Aintzane).

**Ikasle batek** pisua konpartituko luke Deustun edo Ibarrekolandan (Bilbon). ☎ 76 32 85 (Ivan).

**LANA**

**Aleman** klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

**OHO**ko klaseak ematen dira. ☎ 76 11 89 (Enmanuel).

**Mtematika**, fisika eta kimikako klaseak. ☎ 76 44 34.

**Aleman** diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Etxeak** garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Gutxitu psikikoen hezitzaile** batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 52 08.

**OHO**ko klaseak ematen dira. ☎ 76 21 00 (Iñigo).

**Esperientziadun** neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

**Esperientziadun** neska batek ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 28 16.

**Matematika** eta zientziatako klaseak. ☎ 76 31 31 (Juanma)/ 76 45 80 (Andoni). Barrenkale 13, 3.a.

**Ingeles Filolojia** duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Ingenieritza ikasten diharduen mutil batek OHO, BBB eta UBIIko **partikularrak ematen ditu**. ☎ 76 53 88 (Pedro).

**Matematika**, zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

**SANTOS IRRATI-TB**

**ELEKTRAGAILUAK  
SUKALDE ALTZARIAK  
ARGIZTAPENA  
ANTENA KOLEKTIBOAK  
TB, BIDEO ETA SOINU  
APARAILUEN  
KONPONKETA**

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10



**LAGUN ARO**  
ASEGURUAK



**AGENTEA-DELEGATUA**

**Ramon Iraegi Eguren**

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxa: 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00 Larunbatetan: 9.00-13.00

UDAKO ORDUTEGIA: Uztailaren 17tik irailaren 18ra arte.

Astelehenetik ostiralera: 9.00-13.00



# BONOFOTOA



## Irene Diaz de Gereñu

**Irene Diaz De Gereñu** jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen Udaletxean dagoen murala nork margotu zuen galdetzen genizuen. Erantzuna, honako hau: **Simon Arrietak**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Irene Diaz De Gereñu** jaso ditu. Zorionak berari eta besteek segi jokatzten.

*Angiozarko zein auzunetan aurkitu dezakegu San Migel ermita?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara



# Sauna, masaia eta solarium zerbitzuak igerilekuetan

**Astelehenean** zabalduko ditu ateak Udal igerilekuko sauna, solarium eta masaia zerbitzuak. Azken hilabetean egindako berritze lanen ondoren, Mireia Markiegi eta Irune Azpeitiak izango dute zerbitzu horiek aurrera eramateko ardura. Lokaleko zorua aldatu da eta hormak pintatu egin dituzte.

Zerbitzu hauek erabili nahi dituenak goizeko 8etatik iluntzeko 9etara izango du aukera. Irune Azpeitia izango da masaia zerbitzuaren arduraduna eta sesio bat hartzeko 76 20 51 telefonora deituz ordua eskatu behar da. Sauna zerbitzuari dagokionez, beharrezkoa ez den arren, ordua eskatzea komeni da. Mireia Markiegi adierazi digunez, *"jendeak uste du sauna argaltzeko dela, baina gebienbat gorputzak dituen toxinak kentzeko balio du. Oso relajantea da eta hartzea merezi du"*.

## Solariuma ere martxan

Solariumari dagokionez, eguzkia hartu baino lehen solariumean larruzala ohitzea komeni dela



Mireia Markiegi, Irune Azpeitiarekin batera sauna, masai eta solariumneko arduraduna da.

esan digu Markiegik. Prezioei dagokionez sauna saio batek 380 pza. balio ditu bazkideentzat eta 625 gainontzekoentzat. 10 saiorako bono batek bazkideentzat 3.400 pza. balio duen bitartean, gainontzekoentzat 5.600 pza. kostako da. Solariumean saio batek 600 pza. balio du bazkideentzat eta 850 gainontzekoentzat. 10 saioko bono batek 5.350 pza. bazkideentzat eta 7.550 gainontzekoentzat. Masaiari

dagokionez 20 minututik 45 minutura bitarteko masaiak daude aukeran

eta hemen ere Kirol Zerbitzuko bazkideek deskontuak dituzte.

## Futbitoia datorren asterako

Labegaraietako Futbito Txapelketa datorren astebukaeran hasiko da. Antolatzaileek asteburu honetan hastea nahi zuten, baina igandean kilometroak dela eta, astebetez atzeratzea erabaki dute azkenean. Gogoratu dezagun 4 taldetan banatutako 47 taldek hartuko dutela parte. Bestalde, Antolaketa Batzordeak jakinarazi digu, asteartero arratsaldeko 7etan Kultur Etxean bilduko dela eta karnet neurriko argazkia entregatu ez duten jokalariei jakinarazten zaie eramaten ez badute ezin izango dutela jokatu.

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

*"Erratzu"*

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA



# BKEko Eskubaloi saila sei taldek osatuko dute



**Senior Mutilak (2. Nazionala).** Edu Iñarra, Kepa Mendibil, Aitzol Altuna, Edu Eguren, Felix Pescador, Jose Ramon Iturbe eta Gotzon Arzelus. Josetxo Muniategi (Entrenatzailea), Xabier Elkoro, Aritz Aranguren, Eugenio Cabo, Garikoitz Arregi eta Gorka Larrañaga. Aitor Ibarra eta Aritz Beistegi falta dira.



**Kadete Mutilak.** Iñigo Arregi, Mikel Agirrezabal, Urko Altzerreka, Gaizka Osa, Haritz Lamikiz, Ortzi San Andres eta Xabier Lijo (Entrenatzailea). Asier Mujika, Ibai Gomez, Xabier Barrero, Ruben Sanchez eta Peru Sagarna.



**Senior Mutilak (2. Territoriala).** Asier Elorza, Ander Aretxaga, Gotzon Aranguren, Ion De Pedro eta Gorka Astaburuga. Iker Larrañaga, Iban Osa, Iñigo Idigoras eta Iker Idigoras. Julen Montealegre, Ion Sotil, Aitor Gomez, Felix Eguren eta Martin De Pedro (Entrenatzailea) falta dira.



**Jubenil Neskak.** Nerea Azkarate, Ainhoa Fernández, Bihotz Beristain, Uxue Manterola, Jone Azkarate eta Zigor Ruiz De Egin (Entrenatzailea). Esther Ibabe, Itxaso Ezenarro, Ana Abajo, Maitane Gabilondo, Ariane Kareaga eta Nagore Iñurategi.



**Jubenil Mutilak.** Kepa Eguren, Ibai Goenaga, Raul Pozo, Eñaut Alvarez, Urtzi Rubio, Ekain Sotil, Aitor Aldanondo eta Ibon Gantxegi (Entrenatzailea). Asier Arana, Iker Dorronsoro, Lander Juaristi, Aitor Arruti, Aitor Sanchez, Ibai Kareaga eta Aritz Mazkieran.



**Kadete Neskak.** Itxaso Basauri, Enara Minguez, Usune Beristain, Oihana Garmendia, Uxue Larrañaga, Eneritz Zabaleta, Irupe Gómez eta Edu Orgaz (Entrenatzailea). Argiñe Zurutuza, Maite Esparza, Ainhoa Usaola, Ane Arietaleanizbeaskoa, Maite Gallastegi, Maite Jauregi, Olatz Manuel eta Aitziber Etxeberria (Laguntzailea).



## FUTBOL PARTIDUAK

## ◆ Bergara-Intxaurren

Lehen Erregionala.  
Larunbata, 17.30. Ipintza.

## ◆ Bergara-Añorga

Ohorezko mailako jubentzako.  
Larunbata, 15.30. Agorrosin.

## ◆ Bergara-Idiazabal

Lehen mailako kadeteak.  
Larunbata, 10.30. Ipintza.

## ◆ Bergara-Antzuola

Bigarren mailako kadeteak.  
Larunbata, 9.30. Ipintza.

## ◆ Bergara-Alde Zaharra

Emakumezkoak.  
Larunbata, 12.00. Ipintza.

## ESKUBALOI PARTIDUAK

## ◆ Bergara-Zarautz

Senior mutilak.  
Larunbata, 19.00.  
Labegarieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Lakua

Jubenil neskek.  
Larunbata, 17.45.  
Labegarieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Lakua

Kadete neskek.  
Larunbata, 16.30.  
Labegarieta kiroldegia.

## SAN MARTIN KROSSA

Alberto Revuelta elgoibartarrak irabazi zuen joan zen zapatuan jokatuak San Martin Herri Krossa. 27 minutu eta 22 segundutan burutu zuen 9.000 metroko proba. Bigarren Manuel Hurtado azpeitiarra (27' 24") sailkatu zen eta hirugarren, Juan Aldai eibartarra (28' 24"). Anselmo Gómez izan zen lehen bergararra (30' 44"). Junior eta kadete mailetan, bestalde, Manuel Anguas eta Felix Sánchez arrasatearrak izan ziren onenak. 65 kirolarik hartu zuten parte.

# Anselmo Gómez

## Herri lasterketetan gustora

**Anselmo Gomez joan zen larunbatean jokatu-tako herri krossean bergarar onena izan zen, beterano lasterketan berak bakarrik korritu baitzuen. Historial biki-kaina du, iazkoan izan ezik Behobia-Donostia lasterketa guztietan izan baita.**

**- Zer moduz larunbateko lasterketan?**

- Bergaratik nik bakarrik korritu nuen, halere egindako denborarekin konforme nago. 9 kilometroko zirkuitoa orduerdian burutu nuen eta.

**- Inguruan antolatzen diren lasterketa herrikoi guztietan ikusten zaitugu...**

- Donostiako maratokia guztietan izan naiz, baina haur txikiak ditut eta denbora asko kentzen didate. Ondorioz distantzia luzeak utzi eta motzetera moldatu beharra izan dut. 17 Behobia-Donostia lasterketetan izan naiz eta baten bakarrik egin dut kale.

**- Nola hasi zinen antxintxikan?**

- Zumarragan jaiotakoa naiz eta han La Salle eskolan judo egiten nuen. Hainbat txapelketetan parte hartu nuen, baina Bergarara ezkondu nintzenean Mayc-en hasi nintzen lanean eta kilo batzuk hartu nituen. Orain dela 17 urte korrika ez zuen ia inork egiten, ez zegoen modan, eta goizeko 6ak aldean aritzen nintzen, inork ez ikusteko, lotsa ematen zidan eta... Ola alderuntz

joaten nintzen, beno, hasieran Olaraino ez, Zabalara heltzearekin nahikoa nuen. Orduan hasi zen Donostiako maratokia eta 3. edizioan hasi nintzen parte hartzen..., 1993ra arte ez dut huts egin.

**- Gorputza zaintzen al duzu?**

- Normal. Asteburuan txikito batzuk hartzen ditut lagunekin eta egunean 3 zigarro erretzen ditut. Asteburuan, karta partidand, purotxo bat erretzen dut, baina kea tragatu barrik. Hori bai, astean zehar gutxienez 3 edo 4 aldiz


entrenatzen dut, bakoitzean 14 km eginez.

**- Gaur egun zela ikusten duzu Bergarako korrikalarien mundua?**

- Behobiara 80 lagun inguru joango dira, baina asteburuko proban ni bakarrik aritu nintzen. Ez dakit zergatik den, lotsagatik, herrian dagoen atletismo klubaren fundamentu faltagatik... Auskalo!!

**- Atletismoari dagokionez zein da zure ametsa?**

- Londreseko maratokia korritzea gustatuko litzaidake.



"Nire ametsa Londreseko maratokia korritzea da".

**"Behobiara 80 bat bergarar joaten dira; herriko lasterketetara, berriz, ia inor ez"**





## Aupa San Migelak!!

**H**i Patxi, San Migel bat eta gorri bi. Halakuak eskatzeko aukeria izango dozue astebukaera honetan Angiozar aldiari, jaixak die eta. Erretratuan oiñ dala 20 urteko jaixak dauzkagu, elizpian eiñ izan dan herri bazkeixa. Aza-garbantzuak odolostiekin, okela egosixa tomatiaz, frutia -mahatsa jeneralian- eta gero kafia eta kopak. Gerora, zezena jaten hasi zien. Gaiñera, senar-emazte zaharrenei omenaldi txiki bat eitten jakuen. 1975ian omendutakuak Bernardo Larrañaga eta Justa Askasibar izan zien. Ondo pasau!

Aurretik atzera:

**Ezkerrian:** Bernardo Larrañaga, Justa Askasibar, Rikardo Larrañaga, (atzian tapauta) Urrategi Elorza, Maria Pilar Garai.

**Eskuman:** Luis Mari Elorza, Angeles Laspiur, Benita Gorosabel, Anjel Mikeo, Clarita Laspiur, Anparo Oianguren, Jesusa Garitano, Eusebio Pagaldai, Felix Aldekoa.

*Erretratua: Imanol Iriagarai*

*Testua: Felipe Iñarra*

### IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

### BOLINTXO

#### Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA

Ibarrekruz, 4 EIBAR

☎ 76 63 42 ARRASATE

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

ANTZUOLA BERGARA

• Apaintetarako eta industriarako pinturak •

• Paper margotuak •

• Meketak eta tapizatuak •





# LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta, 71. ☎ 76 31 71

**LILURA EDERTZE  
INSTITUTUAREN  
AZKEN  
NOBEDADEA!!**

**BETIRAKO DEPILAZIO  
ELEKTRIKOA!!**

- Aurpegi zein gorputzaren edozein ataletan
- Gizon eta emakumeentzat

✓ **DENBORA GUTXIAGO**  
✓ **ETA MINIK GABE**

Bekainak  
Bigotea  
Aurpegia  
Lepoa

Eskotea  
Bularrak

Izterondoak

Bizkarra

Besapea

Besoak

Izterrak

Bernak

**KONPROBA EZAZU!!**

# ELKAR

## ELEKTRAGINTZA



**Mota guztietako instalazioak**



**76 00 00**

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**



# JATORDUETARAKO TOKIRIK EDERRENAK

## ANGIOZARREN

### ONDO PASA SAN MIGELAK!!



#### BEHEKO TABERNA

- BEREZITASUNAK: KONEJOA ETA MENESTRA.
  - EGUNEKO MENUA.
  - KARTA ZERBITZUA: ARRAINA...
  - BATAIO, EZKONTZA, JAUNARTZE BAZKARIAK.
- ☎ **76 55 74** ANGIOZAR

#### TABERNA ZAHARRA

- ETXEAN BEZAIN ONDO TRATATUKO ZAITUGU.
  - GIRO ATSEGINA.
  - KARTA ZERBITZUA.
- ☎ **76 21 21** ANGIOZAR



#### ORTZI

- PARRILAN EGINDAKO IDI TXULETAK, ARRAINAK...
  - EGUNEKO MENUA.
  - BATAIO, EZKONTZA ETA JAUNARTZE BAZKARIAK.
  - 120 LAGUNENTZAKO JANTOKIA.
- ☎ **76 22 68** ANGIOZAR

